

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Erandioko Udala****Antolaketa eta Sistemen Arloburu lanpostua hautatzeko oinarrien zuzenketa**

2020ko urtarrilaren 15ean, Erandioko Udalak Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren idazkia jaso zuen. Horri dagokionez, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, honako zuzenketa hau egin da Erandioko Udaleko Antolaketa eta Sistemetako buruaren lanpostua hautatzeko oinarrietan (2019ko abenduaren 9ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 234. zenbakia).

7. orrian, merezimendu profesionali dagokion atalean:

- «gehieneko puntuazioa: 9,00 puntu» dio
- baina «gehieneko puntuazioa: 5,00» beharko luke.

Era berean, prestakuntza-ikastaroen balorazioari buruzko atalean:

- «gehieneko puntuazioa: 15,00 puntu» dio
- baina «gehieneko puntuazioa: 8,50 puntu» beharko luke.

6. orrian, oposizio-fasearen bigarren ariketan, honako hau ezabatu da: «Euskararen erabilera-planean (2018-2022) xedatutakoa betez, proba hau euskaraz egingo da».

5. orrian:

- «HAEEko idazkariak» dio
- baina «HAEEK izendatutako pertsona bat» beharko luke.

Indarrean den Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren Legeari buruz hitz egi-tean, ulertu behar da urriaren 1eko 39/2015 eta 40/2015 legeei buruz ari dela, hots, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren legeei buruz.

Eta hala jakinarazten dugu, bidezko diren ondorioak izan ditzan.

Erandioko Elizatean, 2020ko otsailaren 3an.— Alkatea, Aitziber Oliban Gutiérrez